

BERRIGARA

2. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1990, Abenduak 21



Berba,
zer ba?

BANCO



Guipuzcoano

LOIOLA '91 BANKU OFIZIALA



ZORIONAK

eta

ETORKIZUN

OPAROA

BERRIGARA

JAIOBERRIARI

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotakde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea:

Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberebizbar

Erredakzio eta maketazioa:

Jon Andueza. Edurne Arenaza.

Diseinua:

Goio Arana

Publizitatea eta harpidetzak:

Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru.

Kolaboratzaileak:

Josu Oregi, Antonio Urzelai, Iñaki Artola, Agurtzane Arriola, Mirari Alberdi, Karmen Urrutia, Silvia Sanz, Asier Madinabeitia, Imanol Arregi, Mikel Alberdi eta Xabier Larrañaga.

Argazki laborategia:

Bergarako Argazkilari Taldea, Benito Cantero eta Kifitu.

Komikia eta marrazkiak

Josu Okina

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



21 OSTIRALA

- **Zinea:** "Ghost", 10.30etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean, "Polizi akademiko" filmaren emanaldia.
- **Margo erakusketa:** Kultur Etxean, Bergarako Margolarien erakusketa. Urtarrilaren 6ra arte.
- **Goardiako farmazia:** Mozos, San Pedron.

22 LARUNBATA

- **Zinea:** "Ghost", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Abendu Musikala:** Gabonetako kontzertua. Pilotalekuan, gaueko 10.30etan: Udal Musika Banda, Arizeta Abesbatza, Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia.
- **Larru Erakusketa:** Urtarrilaren 6ra arte, Kultur Etxean, J. I. Murgizuren larru artisautza erakusketa.
- **Argazki erakusketa:** *Bizi Alternatiboa 90* kanpainan ateratako ehun argazki osatutako erakusketa.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan.

23 IGANDEA

- **Zinea:** "Ghost", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Angiolilloren bideoa:** Gaueko 12etan, Txibiston, *Angiolillo* musika taldearen bideoaren aurkezpena.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan.

24 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Ghost", 5etan.
- **Olentzero:** Kintoak, ikastolako haurrak, etab. herriko kaleetan zehar Olentzerori ongietorria kantatzen.
- **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

25 ASTEARTEA

- **Zinea:** "Muerte entre las flores". 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Kultur Etxean, 7etan, Pentekosten eta San Martzialako irudiak.
- **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

26 ASTEAZKENA

- **Zinea:** "Muerte entre las flores". 10.15etan.
- **Bideo Hamabostaldia:** Kultur Etxean, 7etan, San Martinetako eta Bizi Alternatiboko irudiak.

- **Haurren jolasak:** Bergarako Kultur Ekintzak antolatuta, Haurren Jolas eta Kultur Astearen hasiera.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategi.

20 OSTEGUNA

- **Zine Kluba:** Arratsaldeko 7.30etan, "Society".
- **Haurrentzako kirolak:** Udaleko Kirol Zerbitzuaren eskutik, haur-jolasak Igerileku eta Kiroldegian.
- **Goardiako farmazia:** Mozos, San Pedron.

Aukeran...

• KULTUR ETXEAN
ETA ERREGE
EGUNERA ARTE,
ARGAZKI, LARRU-
ARTISAUTZA ETA
MARGO
ERAKUSKETAK

• 24EAN, KINTOAK,
IKASTOLAKO
HAURRAK, ETAB.
HERRIKO KALEETAN
ZEHAR OLENTZERORI
ONGIETORRIA
KANTATZEN

edergai

LAMINA, MOLDURA
ETA OLEOAK.

BIDEKURUTZETA 38
BERGARA Tfnoa: 76 31 03

LAZKANO

oinetakoak

BARRENKALE 15
BERGARA Tfnoa: 76 25 03

ITZIAR

MERZERIA

MATXIATEGI 1 BERGARA

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

CARASA

ASEGURU

ARTEKARIAK

D. FLEMING 3 BERGARA
Tfnoa: 76 15 24



ANGIOZARRERA NONDIK?

Urte mordoska baten Angiozarren bizi ondoren azken lau urte hauetan ez dut izan bertara bueltatzeko aukerarik, pasa den urrian lagun baten hiletara etorri nintzen arte.

Eibar aldetik nentorrelarik aldenik-alden pasa nuen Bergarako bariante osoa eta konturatu baino lehen Olan nengoen Angiozarko bidea aurkitu ezinka. Buelta hartu eta Bergara-Hegoa bidekurutzea hartu eta azkenean bideratu nintzen Angiozarrera inon seinalerik aurkitu barik, Itturrikoan dagoena izan ezik.

Gero, hileta ostean, gertatutakoa komentatuz, egoera berdinean aurkitutakoak bat baino gehiago zirela kontu-

ratu nintzen.

Bide berriak egiten direnean seinalizazio egoki bat ipintzea ez da gehiegizko gauza, bertakoei eta kanpotarrei zaien begirunea adierazten du, eta bide batez, kulturarekiko errespetoa ere erakusten du, izena duten toki eta herriak bere izenarekin izendatuz, eta ez Bergara-Hegoa hotz batez. Erantzunkizuna duenak har dezala botatakoa.

A. Urrutia

✓ Oharra:

Bidali zure gutunak sail honetara; laburrak izan daitezela.

Eta beste gauza bat:

Datorren astean Gabonetako oporrak direla eta, ez zaizue *Berrigara* etorriko. Beraz, hurrengo alea, 3.a, urtarrilaren 4ean kaleratuko da.

Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldegia 76 56 41
Igerilekak 76 20 21
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49





Nahiz eta talde ugari aurka azaldu

Asentzio aldatzear

Elgetako Udalak Osoko Bilkura istilutsua bizi izan zuen asteartean. Aztertu zen gaia, Asentzioko parkearen eraikitzea.

Bost hektarea expropiatzeaz gain, Udala zuzentzen duen Talde Independienteak 250 aparkaleku eta 300m²ko jatetxea eraiki nahi ditu; baita pilotalekua, futbol zelaia, bolatokia, etab. luzea ere.

Talde ugari azaldu da proiektuaren aurka; besteak beste, Angiozar Bailarako Batzarra, EKI, EGUZKI,

Mendia Bizirik, EHNE, Elgetako HB eta EAJ.

Astearteko Bilkuran, hain zuzen, Alkateak itaunketa eta protesta ugari entzun zituen talde horien ordezkarien ahotik. Ingurunea hondatuko dela salatuz, azterketa serioago bat eskatu zuten, eta onarpen prozesua lehen bait lehen gelditu eraztea.

Independienteek ez zuten inolako jaramonik egin, eta gatazka giroan, euren bost botuekin proiektua Diputaziora bidaltzea erabaki zuten.

☛ Buzkantz lehlaketa

Berrogeitahiru partehartzaileraren artean bigarren postua lortu zuen Migel Mendibilek Santa Lutziako Buzkantz Lehiaketan.

Migelek pozik hartuko omen luke ingurutik jende gehiago animatzea.

Saiatu nahi duenarentzat, hona hemen bere buzkantzen osagaiak: ardi odola, ardi seboa, porruak, kipula, perejilla eta oreganua. Ea hurrengoan txapela lortzen den!

☛ Kale garbiketa

Udaleko Osasun eta Ongizate Zerbitzuak, martxoaren 15era arte luzatu du "kaleak garbi" kanpainarako ideiak aurkezteko epea.

☛ Sahiesbidea

Gipuzkoako Diputazioak azken onespina eman dio Bergarako saihesbidearen bigarren faseari. Gauzak horrela, azkenean 625 milioi pzt.a.ko gastuari aurre egin behar izan zaio, hau da, aurrusitakoa baino 37 milioi gehiago.

Batzokiaren 10. urteurrena



Ospakizun giroa bizi dute Bergarako batzokian.

Egoitzaren 10. urteurrena dela eta, igandean lehenik meza entzutera bildu ziren alderdikideak.

Ikurriña jaso eta gero, Azpillagaren bertsoekin eman zioten hasiera aktu politikoari frontoian. Bertan, Xabier Arzallus, Joseba Egibar eta Koldo Pereira izan genituen hizlari. Ondoren, Jeltzaleek bapo bazkaldu zuten.

Ospakizunekin segituz, astean zehar ere hainbat hitzaldi izan dituzte, tartean J. A. Cuerdarena.

Imanolen saioa Mariaren Lagundian

Astearte eguerdian, Imanol kantaria hurbildu zen Mariaren Lagundia ikastetxera, bertako ikasleeei eta elementalekoei emanaldia eskaintzeko.

Ekitaldia, Diputazioak ikastetxeei eskainitako programaren barruan dago. Aurki, Txomin Artolaren saioa ere izango dute Mariaren Lagundian.



alga

Usaindegia.

Eder-gela. Oparigaiak.


IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA




✓ **Kirol Zikloetako Koordinatzailea**

Udaletxeak plaza hori betetzeko deialdia egin, eta Begoña Payas Amezua aurkeztu zen bakarrik. Lanpostua, noski, berak eskuratu du. Begoñak 26 urte ditu. Bilbotarra da, eta majisteritza ikasketak burutu zituen.



✓ **Biharko Udaltzainak**

Urduri zeuden, dirudienez, Udaltzaingorako hiru plazak betetzeko egindako euskara azterketan bildutako hamazazpi hautagaiak. Proba gainditu dutenen zerrenda, ordea, Gabonak pasa ondoren kaleratuko da.



✓ **Artxibategirako probak**

Artxibategirako plaza fijorako deialdira lau lagun aurkeztu ziren, baina euskara proba Arantzazu Oregi Goñi bergararrak gainditu zuen bakarrik. Argazkiaren ezker aldean, bigarren azterketaren egunean azaltzen da. 27 urte ditu, Historia ikasketak burutu zituen eta 10 hilabete eman ditu ia seguru eskuratuko duen lanpostuan.



✓ **Pertxa Txapelkun**

Larunbat gauean, giro ezin hobean, elkarte arteko Mus eta Tute Txapelketaren finalak jokatu ziren Goxo-Pen. Aurrez aurre, Gorla eta Pertxa izan genituen. 3-0eko emaitzaz nagusitu ziren argazkian azaltzen diren Pertxatarrak. Zorionak!



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK

ZURICH VITA HISPANIA UNIBER CAUDAL

"ZURICH" TALDE SUIZARRA EUROPAKO ASEGURU-ETXEEN ARTEAN NAGUSI DA ETA ASEGURU AUKERA ZABALENA ESKAINTZEN DU.

AUTOA - ARRISKU ASKOTARAKOA - ISTRIPUAK - ETXE BARRUA - KOMERTZIOA-
ETXEGINTZAN ARRISKU GUZTIETARAKOA - TRESNA ELEKTRONIKOAK - INDUSTRIAREN
SEGURITATE GORENA - GARRAIOAK - ZAHARTZARORAKO ETA FAMILIA BABESTEKO
PLANAK - PENTSIOETARAKO PLANAK ETA DIRU PILAKETAK - EHIZTARIAREN
ARDURAKIZUN ZIBILA

EGON ZAITEZ BERGARAKO AJENTEEEEKIN.

MARTIN LARRAÑAGA MUJICA.
JESUS ELKORO ARANBERRI.

IBARGARAI 2, BEHEA
Tfnoa: 76 57 85

BERGARA

Joan den ostiralean hasi Kultur Etxean

Bideo Hamabostaldia

Kultur Etxeko zerbitzuak antolatuta, joan den ostiralean hasi eta urte bukaerara arte luzatuko da Bideo Hamabostaldia Errotalde Jauregian.

Egitasmoaren barruan, hainbat elintza mota bildu nahi izan dituzte.

Alde batetik, euskarazko filmeen emanaldiak aipatu behar. Dagoeneko *Mad Max* eta *Purpura Kolorea* ikusteko aukera egon da. 28an, berriz, *Polizi akademi* eroren txanda.

Filmeez gain, beste era bateko bideogintza ere jorratu dute. Hala nola, egun hauetan zehar iazko gabonetan kiroldegian antolatutako haur jolasen bideoa eskaini da; eta oraindik emateke daude Pentekostes, San Martzial eta San Martin jaietako irudiak; astearte eta asteazkenean izango da hori, arratsaldeko 7etan hasita.

Era berean, asteazkenean Bizi Alternatiboari buruz prestatutako lana ere izango



Jose Aranzabal eta Alberto Rubio

dugu ikusgai.

Telebista lokalak

Azpimarragarria baita, egitarauaren barruan astearte arratsalde burututako telebista lokalei buruzko hitzaldia. *Arrasate telebista* tik Joxe Aranzabal, eta Andoingo *Kanal Onetik* Alberto Rubio hurbildu ziren, eurek zuzentzen dituzten proiektuei buruzko xehetasunak ematera.



Mizpirualde Egoitzan ospakizunak

Edadetuen Astea

Mizpirualde Egoitzaren eskutik, *Hirugarren Adinaren Astea* ospatu berri dute gure aitona-amonek. Ekitaldietan, gehienbat bertan bizi diren larogeitamairu jubilatuek hartu dute parte.

Saltsari igandean ekin zioten, Egoitzan antolatutako bazkari eta dantzaldiarekin.

Astelehen arratsaldean, *San Martin Agirre* ikastetxeko neska-mutikoak hurbildu zitzaizkien, antzerki saioa eskaintzeko asmoz.

Astelehenean, Musika Eskolako Tipleen emanaldia ere gozatu ahal izan zuten.

Astearte eta asteazkenean, jaigiroa txokolatada eta dantzaldien bidez gauzatu zuten.

Atzo, bingo jolasa eta sari ezberdinen zozketa.

Eta festarekin bukatzeko, gaur Santo Tomas eguna ospatu dute. Txistorrada lehenik, eta ondoren karta txapelketa ezberdinetan ihardun dute.

Umorea, beraz, soberan.

GANTXEGI
MERZERIA

BOLU 28 Tfnoa: 76 00 69
BERGARA

Aldoka
Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA



ARGAZKI

BARRENKALE 16 Tfnoa: 76 20 66

BERGARA



Ume ugari bildu zen Kultur Etxean, "Euskara Bergaran" kanpainaren barruan antolatutako ekintzatan.

Bergarak euskararekin bizi duen kontraesana

Jakin bai, baina erabili ez

1986ko zentsua

1986. urteko zentsuaren arabera, Bergaran 10.024 lagun euskaldunak dira, 2.636 ia euskaldunak, eta 2.547 erdaldunak.

Siadecoren azterketa

1.987. urtean, Bergarako Udalak euskarari buruzko azterketa soziolinguistikoa eskatu zion Siadecori. Enpresa honek kaleratu berri ditu azterketa horren emaitzak, eta bat datoz zentsuan bildutakoekin.

Bergarren %66ak, hau da, hiru herritarretatik bik ondo daki euskaraz; %16,7a ia euskalduna da, eta 17,3a, azkenik, erdalduna. Oñati kenduta, bailarako herri euskaldunena dugu Bergara.

Inguruko auzoetan proportzioak itxaropentsuagoak

dira. Elorregi, Angiozar, Ubera, Osintxu eta Elosun, esate baterako, %83ak ezagutzen du gure hizkuntza.

Balantzaren beste aldean San Antonio eta Labegaraieta aurkitzen ditugu, %60ko kopuruarekin.

Zenbait datu

Ez da askorik aldatzen

Bergarako euskaldunen proportzioa sexu batetik bestera. Hala ere, badago diferentzia txiki bat: emakumezkoetan batz bestekoa zertxobait haundiagoa da gizonezkoetan baino. Ehun neskatatik hirurogeitazazpik ezagutzen du hizkuntza; mutilen artean, ehunetik hirurogeitalauk.

Adinez adineko sailkapena bilatuz, zera aipatu be-

Siadecok egindako azterketa soziolinguistikoaren arabera, Bergaran hirutik bik ondo daki euskara. Hitzegiteko orduan, ordea, zeharo aldatzen dira gauzak; ez dago eguneroko bizitzan gure hizkuntza erabiltzeko ohitura handiegirik. Hortxe, beraz, irabazi beharreko apostua.



har: hirurogei urtetik gorako pertsonen artean, hamarretik bederatzik dakiela euskaraz. Antzeko zerbait gertatzen da hamalautik beherako neska-mutikoen artean.

Beharakada, ordea, hamabost eta hirurogei urte arteko pertsonetan datorkigu; edade horietan, gutxi gora behera hamarretik seik daki gure hizkuntza.

Txinpartak:

- ✓ Hirutik bik ondo daki euskaraz Bergaran
- ✓ Bailarako herriein konparatuta, Bergara euskaldunenetakoa
- ✓ Auzoetan (Osintxu, Ubera, Elosu, Elorregi eta Angiozar) herrian baino gehiago erabiltzen da
- ✓ Baserritar eta ugazaben artean euskaldun proportziorik altuenak
- ✓ Gehiengo seme-alabel irakastearen alde
- ✓ Denak ados: euskara gutxlegi egiten da
- ✓ Aldeko jarrera bai, baina maila hobetzeko asmo haundirik ez

Alde onak

Grafikoekin jarraituz, esan dezagun goi mailako profesional, langile kualifikatu eta nekazari autonomoen alorretan, ezagupen mailak gora egin duela azken urteotan.


Merkataletxe eta zerbitzuetako enplegatuen munduan ere indartu egin da euskararen presentzia.

Argi utzi behar, dena den, oraindik baserritar eta ugazabek ematen dituztela porzentaiarik altuenak.

Alde ez hain onak

Siadecoren azterketa soziolinguistikoan, hainbat datu kezkarri azaltzen zaigu. Adibidez, profesio liberaletan euskarak azken boladan bizi izan duen atzerakada.

Eta ez hori bakarrik. aipatzekoa da, bergarrek ez



Jerardo Elortzaren hitzaldia: Euskara Bergaran historian zehar

Jakin bai, balina...

Inkesten arabera, denak datoz ados euskara gutxiegi egiten dela esaterakoan.

Eta hala da, bai. Eguneroko bizitzan, gazteen %20ak

eta helduen %38ak erabiltzen du bakarrik.

Horixe da, hain zuzen ere, Bergarak bizi duen kontrasesan nagusia; nahiz eta jakin, askotxo dira euskaraz mintzatzen ez direnak.

Txinpartak:

- ✓ Emakumeak gizona baino euskaldunago
- ✓ 14 urtez azpiko haur gehienek dakite euskaraz
- ✓ San Antonio aldea erdaldunena
- ✓ Euskara gehien kultur elkarteetan

Elkartzeko garaia

"Euskaraz, ahal dugulako" izan da Udalak antolatatu berri duen kanpainaren lema. "Elkartzeko garaia" ere izan zitekeen.

Bergarako euskaldunak elkartzeko garaia heldu da; ideologia, adin, lanbide... guztietako euskaldunok elkartu eta euskara indartzeko proiektuari gogoz eta ilusioz ekingo dion herri-elkartea eratzeko momentua iritsi da.

Elkartasunean lortu dute Lizarran, euskara orain bi mende galdu zuen herri batean, gaur egunean kalean euskaraz entzutea gauza normala izatea.

Elkartasunean lortu dituzte Arrasaten euskara hutsezko telebista, euskara hutsezko astekaria eta hainbat elkarte, pertsona eta enpresak (70 inguruk) elkarren artean euskaraz jarduteko konpromisua hartzea.

Elkartasunean sortu zituzten bergarrek ikastola, euskaltegia, antzez-taldeak eta... Berrigara.

Bakarrik edo talde txikian jokatzek etsipenera eraman gintzake. Bergarako euskaldunoi ELKARTZEKO GARAIA heldu zaigu.

Estepan Plazaola
(Euskara dinamizatzailea)

**Sendo
babesturik
zeukak, hai,
bere herria,
euskaraz
diharduen
euskaldunak**

J. Artze

dutela hizkuntza maila hobetzeko asmo haundiegirik erakusten; lanean hala eskatzen dietenean bakarrik.


BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



PRAKAK
Lee rok
 Burdinate z/g
 Tfnoa: 76 40 06 BERGARA

iRUDI
ERLOJUTEGIA
BITXITEGIA
 SAN PEDRO 11.
 Tfnoa: 76 51 65

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 D. IRALA 5
 Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

LIZAR
HALTZARIAK

 Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53
 BERGARA

HALTZARI
 FAGOR HALTZARIEN BANATZAILEA
 SUKALDERAKO HALTZARIAK.
 BOLU 24. Tfnoa: 76 30 57
 BERGARA

EASTER
MODA ETA LAGUNGARRIAK
 T.Aranzadi Tfnoa: 761008 BERGARA

Bergaran jartzekotan, telebista ala irratia ?




Arantxa Odriozola
 30 urte

Nik nahiago dut telebista lokala, jendeari telebista ikustea askoz gehiago gustatzen zaiolako.



Alfonso Moreno
 78 urte

Nik telebista aukeratuko nuke, hobeto informatzen duela iruditzen zaidalako.



Gregorio Plazaola
 40 urte

Irratia aukeratuko nuke. Praktikoagoa iruditzen zait, telebistak baino margen haundiagoa eskaintzen duelako. Denbora luzeagoko saioak, egunero, eta errazagoa da jende aproposa aurkitzea.



Toñi Cabezas
 16 urte

Nahiago dut telebista. Hobeto informatzen du, eta erakargarriagoa da jendea ikustea, ahotsak bakarrik entzutea baino.

PUXKIN
OINETAKOAK

 D. IRALA.
 BERGARA Tfnoa: 76 21 17

KILKA
MENAGE
ETA
OPARIAK
BARRENKALE 18
Tfnoa: 76 34 08
BERGARA



Lehenagoan, Jose Luis Elkoro Alkatea izan genuen bisitari erredakzioan.

Astekariaren proiektua Udalaren laguntzari esker eraman ahal izan dugu aurrera, eta Alkateak, Udaleko arduradun nagusi bezala, hurbiletik ezagutu nahi izan zuen guren egitasmoa. Argazkian, Jose Luis Elkoro, errebista begiratzten.



Zertan dihardute ba?

IÑIGO GALLASTEGI

Gasteizen jokatu-tako Euskadiko Igerilari Konplotoenaren Txapelke-



tan, urrezko domina eskuratu zuen joan den igandean. Hamaike igerilariren aurka neurtu zituen indarrak lau estiloetan, eta bataz besteko markarik onenak lortu.

ANTONIO MERINO


Karrera ederra burutu ondoren, antzuo-larrak bigarren postua eskuratu



zuen igandean, Eibarko Arraten korritutako Bolom-buru Memorialean. Ederto.

JESUS MARI SEBAL

Udaleko informatika plan berria martxan jartzeko eta aholkularitza lana egiteko kontratatu berri duten informatikoa.



Damaso Gallastegi irakasleak lan bat agindu, eta hara non agertu zitzazkigun ikastolako 8. mailako Lorea Orgaz, Aintzane Zubia, Leire Franco eta Laida Zubia. Ordu laurden luzea eman genuen berbetan, eta eskaini ere eskaini ziguten euren laguntza edozertarako. Berrigararen etorkizuna, beraz, esku onetan daukagu!



Horra hoi . . . Jaki zazpigarren mailakoek lantzen duten Arkakuso astekariaren erredakzioa. Lehenik eta behin informazioa jasotzen dute gelaz gela, eta gero aukeratu. Ostiralero, azkenik, hiru orrialdez osatutako errebista banatzen dute Goi Zikloko neska-mutikoen artean.



IGARO

GOI MAILAKO KOSMETIKA
USAINDEGIA.
BIOSOLARIUMA. EDER-GELA
BARRENKALE 35
BERGARA Tfnoa: 76 17 27

Zatoia
Boutique
BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

BERGARA PIEL
Espoloia 6
Tfnoa: 76 20 70
BERGARA

Tragaperrasa

“Tragaperras”ak pentsatzen dogu oingo asmaziñuak diela, baiña ez. Oso aspaldikuak die. Bergan ikusi zan lenengo tragaperrasa Etxenagusi tabernan jarri zan 1927-28 inguruan.

Tragaperrasa Bikandi izeneko durangoar batek ekarri zeban. Honek motorrian eitten zeban transportia, bizkarrian makinia eta ezpanetan puro haundi bat zebala. Kustiñua da tragaperrasorrek sekulako esitua euki zebala. Ixa oingotxe beste.

Txakurraundixak jaten zittuan eta suertia euki ezkerro, bi, lau, sei, zortzi eta hamabiraiñoko premixuak emuten zittuan.

Elementaleko estudiante bat, tallerrian ziharduala, konturatu zan pulgada erdiko arandelak hamar sentimoko txanponen neurrikuak ziela. Hartu dau mordo bat, eta beste bi lagunekin joan da eta... hau dok amama. Bete dau

makinia arandelaz leporaiño eta jaso dittu poltsikuan txakurraundi guztiak, guztira hamazazpi pezeta. Ondorian etorri zienak... dirua sartu eta arandelak etara. Bezeruak keja eta Juan Kruz tabernarixa sutan.

Momentu haretan sartu da bezero bat begittan hartuta zeukana, heldu dau lepazamarretik eta sekulako astinddua emon dotsa.



Bittartian barriai eutsi ezindda mostradore baztarrian gure estudiantiak. Gero ordaindu nahi izan zotsen baiña tabernarixak, barre batzuk egifiaz, ezetz, oso egoki asmau zebala eta.

Antonio Urzelai.

“Ilddia“, aintziñako ohitturia



Hilari Gantxegi

Jente gehixenak eztau eukiko ohittura honen berririk, joan dan mendian akabera aldera galdu zan eta. Iñaki Etxaniz eta Jaione Isazelaiak “Osintxuko Euskera” lanian jaso zeben Euzkitza baserriko Hilari Gantxegiren ahotik. “Ilddia” (hil-deia), norbait hiltzen zanian jentiai, baitta urriñeko baserrittakuei be, abixatzeko sistima

bixkorra zan. Ikusi zela kontatzen daben Hilarik:


“Por ejemplo Migel hil dda Bergan ezta, eta han egoten zan salidia halako etxetan. Harek eifñ euparia, diarra, esanez holako etxian fulano hil dala. Hola, etxeik etxe etorten ei zan Olaldera, Olaldetik Gantxegira, Gantxegitik Artolazabal Azpikora, handik Euzkitzara, Euzkitzatik Lezasora, eta Lezaso zela azkenengo basarrixa dan, Marzelaiandi basuai, Gomezkortatik honuntz dauan basuai, aa!! hots eitten ei jakon, eta hola despatxatzen ei zan hilddia.

Dana diarrekin. Diarra ba ezta ririk onena daukanak ero, ezta; souan jentia ta ‘ba, han baten bat hil da, hilddia dator’. Diarra batetik bestera, segimena zein da sokian moduan. Azkenenguak basuai, beren tokiko basuai. Euparia ein eta basuak kontestau baleu moduan norberak pe kontestau. Basora despatxatzen zeban azkenenguak hilddia. Etxian hilddia lagatzia etzala ona esaten eben gure aurretiko zarrak”.



NEREA
LENZERIA

S. Arrieta Enparantza, 1
Tfnoa: 761952 BERGARA



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919



ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Gabonetako haur-jolasak



Udal kirol Zerbitzuak antolatuta, abenduak 27, 28 eta 29an haurrentzako jolas iharduerak eramango dira aurrera.

3. mailatik 8.era arteko edozein neska-mutikok har dezake parte. Euren ardura hartzeko, igerilekuan zortzi monitorea, eta Labegaraietako kiroldegian beste hamasei egongo dira.

Sarrera doan da, Kirol Zerbitzuan izena eman besterik ez dago.

Igerilekuan, haurrek txirrista bereziak aurkituko dituzte egun horietan. Kiroldegian, berriz, arku tiraketa, ziburuak, trebetasun jolasak etab.

Eguraldiak lagutzen badu, globo aerostatikoan pasiatzera irtetzeko aukera ere egongo da.

Afizionatu mailan, Gipuzkoako txapeldun berria dugu Iñigo Igartua, ziklo-krossaren apostua

Abenduaren 2an, Azpeitian jokaturako *Shanti Lazkano Ziklo-Kross Memorialean*, Iñigo Igartuak ahozabalik utzi zuen mundu guztia, Izagirre edota Pascal Richard-en mailako gizonak atzean utziz garaipena lortu zuenean.

Gipuzkoako txapeldun

Igandean, denboraldiko beste helburu bati eutsi zion Andoainen. Nahiz eta helmugara Kools holandarraren eta Jose Ramon Izagirrearen ostean heldu, Gipuzkoako Afizionatu Mailako Txapela irabazi zuen.

Kools-ek 45 segundu atera zizkion; Iñigoren atzetik, ordea, Van Bakel, Yurrebaso, Benito Duran, Jokin Mujika etab. sartu ziren.

Etorkizunari begira

Soldaduzka amaitu berri, sasoi onean aurkitzen da. Ziklo-krossari eutsi nahi dio buru-belarri, denboraldia hiru hilabetekoa delako. *"Errepidean destakatzeko, ordea, urte osoa eman behar da entrenatzen, eta hori oso gogorra da; nik ezin diot erritmo horri segi, zerrategiko lana ere hor bait dago"*.



Gazteak ziklo-krossera

Gainera datozkion Euskadi eta Espainiako Txapelketak lortu nahiko litzuzke,

eta postu on bat Mundialean. *"Baina hori baino gehiago, txirrindulari gazteak ikusi nahiko nituzke ziklo Krossen-an. Zoragarria delako"*.

Izkutuko kontuak

- * Gehien gustatzen zaizun bazkaria?
Arrai sopa on bat
- * Ikusi duzun pelikularik onena?
Ez zaiz bat ere bururatzen
- * Zurekirol ametsik goxoa?
Superprestigioa irabaztea
- * Bergarako txokorik politena?
Usondo parkea
- * Aukeratu pertsonaia historiko bat.
Ghandi
- * Gustokoen duzun musika taldea.
Dire Straits
- * Nora joango zinateke hilabeteko oporrak pasatzera?
Afrikako toki exotikoren batera.
- * 1etik 10era, zenbat puntu emango zenizkioke Marinori?
10 kirolari moduan, eta 10 pertsona moduan.
- * Ziklo-krossaz gain, atsegin al duzu beste kirolen bat?
Atletismoa



ASTORE

Import. Arrasate, S.A. Tfnoa: 77 03 36

Kirol jantziak Futbolerako botak Ekipamenduak
KIROL DENDARIK ONENETAN

Zure kirol markak
jai zorientsuak opa dizkizu.



Hona hemen Ariznoa ikastolako Batza-ko (1933-36) ikasleak izan zirenen zerrenda osoa, Maria Oyanguren irakasle izan zenak emana. Argazkian agertzen direnak hauek dira:

1. Ierroa (Ezkerretik eskumara): Itziar Aranzabal, Mirentxu Lizarralde, Patxiko Ubillos, Joxe Hernando, Iñaki Arrieta, Josu Murgizu, Jabier Lazpiur, Xabier Linazisoro, German Ibarra eta Felix Lizarralde.

2. Ierroa: Aintzane Marko, Arantxa Arana, Joseba Sotil, Patxiko Azkargorta, Jon Arrieta, Anbortsi Goenaga, Esteban Zabaleta, Tomas Iturbe, Agustin Linazisoro, Felix Narbaiza eta Jose Maria Unamuno.

3. Ierroan: Inazio Iturbe, M. Luisa Narbaiza, Lierni

Gallastegi, Matxalen Oyanguren (Mariaren ahizpa), Julia Beistegi, Maria Oyanguren (irakaslea), Jasone Marko, Elisabeth Arana (ez zen ikaslea), Miren Linazisoro, Asuntxi Zorita, Rosarito Billar, Paulita Beitia eta Josu Azkarate.

4. Ierroan (Guraso-juntakoak): Bittori Aranburu, Txomin Marko, Agustin Linazisoro eta Anita Txintxurreta.

5. Ierroan: Andoni Lazpiur, Joseba Laborda, Jesus Berroya, Miguel Oyanguren eta Xabier Mujika.

Argazkian azaltzen ez direnak: Martin Arana, Mari Kruz Gallastegi, Edurne Laborda, Maria Luisa Narbaiza, Lide Ostolaza, Amaia Ostolaza, M. Teresa Otaegi, Lukile Goenaga, Iñaki Mujika, Iñaki Sotil, Blas Ugalde, Purita Barrena, Lore Larrañaga, M. Pilar Lonarbide, Edurne Ibarra eta Patxi Zabaleta.



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27



ETXEBIZITZA

- Neska gazte bat beste neska batzuekin biziko litzateke pisuan. Tfnoa: 763527.
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 86155, edo 862301.
- Pisua behar dut alkilerean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.
- Pisua salgai. Tfnoa: 761487, 1etatik 3retara eta 8etatik 10etara.

- Pisu erdiamueblatua alkilatzen da. 762793, 8etatik 10etara.
- Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883.
- Baserria salgai Bergaratik 3 km.ra. 770081, 10etatik 1etara eta 6etatik 8etara.
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Pisua alkilatzen da. Tfnoa: 763797. 2etatik 4etara eta 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Pisua alokatzen da Toki-Ederren. Gauzez deitu 764988 Tfno.ra.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Neska bat edo andre bat behar da bi ume zaintzeko. Gaueko 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 764806.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astialdian. 762858
- 20,50 m²ko garajea alkilatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003
- 55 m²ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Precio ona. 763269

Hildakoak

- Martina Oliden Zubiarte
Abenduaren 16an. 95 urte
- Jose Joaquin Mendizabal
Abenduaren 18an. 64 urte.
- Santiago Arregi Lamariano
Abenduaren 19an. 81 urte

BERRIGARA

Egin zaituz harpidedun



760397

**ONENA
TINDATEGIA**

BARRENKALE 29 BERGARA



**Harategia
eta
Txerrikitegia**

SAN PEDRO 24
Tfnoa: 76 12 23

ZUBIAURRE 23
Tfnoa: 76 28 76

BERGARA



ALDASORO

BERGARA, OÑATI eta LEGAZPIko gure dendetan,
ziur asmatuko duzu gabon jai hauetan.

Poltsa polit bat oparitu nahi duzula, edo zapatak erosi, edo zeure "kapritxotxo" bete eta larruzko jantzi eder bat izan nahi duzula...

ZEUK NAHI DUZUNA DAUKAGU.

ZAPATAK- POLTSAK- LARRUZKO JANTZIAK ETA OSAGARRIAK



1.991 zoriontsu baten atarian

Gabon jaietan ere
zure sendikoentzat opari egokienak

ARRASATE KIROLAK^{en}

Kirol bakoitzerako erantzun bat.

NIKE

ASTORE

REEBOK

PONY

ROX

L.A. GEAR

LIBERO

KARHU

ADIDAS

SAUCONY

MILLET

MITO

STRATOS

LUTHA

ELLESSE

MISTRAL

KONTZUZINO KALEA 8. ARRASATE

Tfnoa: 77 12 47 / 79 46 12

Faxa: 77 0530